

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

*Eraman* enpresaren funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak dira hainbat enpresekin aliantza sortzea. Ez bakarrik materialetarako, baizik eta merkatuaratzeko ere bai.

Lehenik eta behin, Zonzini empresa aliatu nagusi bezala izango dugu. Izan ere, geure karro guztia haiek eraiki eta fabrikatuko dute. Guk ezaugarriak eta diseinuak bermatuko dizkiegu eta haiek beraien karroetan oinarritura sortuko dute produktua. Haiek hainbat motatako karroak ekoizten dituzte eta eskailerak igotzeko egitura bikaina bermatzen dute. Hori dela eta, aukera bikaina iruditzen zaigu beraiekin aliantza egitea, kalitatezko materialak eta azpiegiturak erabiltzen baitituzte. Horren truke, guk hilabetero diru kopuru bat ordainduko diegu, ekoiztutako karro kopuruaren arabera aldakorra izango dena. Ondorioz, enpresa hori gure hornitzailea izango litzake.

Gauzak horrela, fabrikazioari dagokion prozesu guztiaz arduratzeko beharra ekiditen dugu. Hala ere, Italiatik (Zonzini enpresa bertakoa da) gureraino karroak garraiatzeaz gu arduratuko gara.

Bukatu aurretik supermerkatuekin egindako aliantza aipatu beharra dago. Eroski, Alcampo, Carrefour, Garbera eta abarrei doainik oparituko baitizkiegu gure karroak. Haiek gaur egun dauzkatenak kendu eta gureak jartzeko. Modu honetan gure karroak ezagutzera ematen ditugu. Etorkizunean salmenta igoera bat ziurtatuz.

Era berean, gure produktua supermerkatu haietan, denda elektronikoetan eta beste hainbat denda lokaletan salgai jartzeko haiekin aliantza egin beharko dugu, eta noski, irabaziaren ehuneko bat eman.

Bukatzeko, gure proiektuari hasiera emateko mailegu bat beharko dugu. Ondorioz, Kutxa banketxearekin aliatuko ginatke. Izan ere, bertako enpresei laguntzea garrantzitsua dela pentsatzen dugu.